

Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2001eko maiatzak 25 ● 214. zka.



**Etxez etxeko
laguntza zerbitzua**



AZKARATE

AROZTEGIA



*Ateak,
leihoak,
horma
armairuak,
tarimak eta
parketak*

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24



MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA

INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA

INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1. ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132. F.: 943 744 153
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es
www.fmh.es



2001-2002 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industria ekipoen mantentze lanak

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa


Ekainaren 5ean atek zabalik, 19:00etan



Izena emateko epea:

ekainaren 1etik 12ra, biak barne

Aurrekontuek onartu die. Zuk zertan gastauko zauke dirua?



Antonio Rubia

Aparkamentuetan behintzat bai. Herriko kale batzuetan arazue nahiko txarto dau.



Jone Unanue

Umiendako eta gaztiendako zeozertan gastauko nauke dirue, jolas-lekuak eingo nituzke.



Justo Muñoz

Herrixen pasialeku gehixau eingo nituzke, eta kale batzuk trafikora itxi.



Iker Iturricastillo

Kiroletxiak nun hobetu badaukela uste dot. Aparkamentuen arazue be gero eta larrixau da batez be beheko partien.



Javier Martinez

Kiroletxiaren gastauko nauke dirua, kanpoko pista bat jarriko nauke.



Miren Lasagabaster

Kiroletzeko instalaziñuak hobetu biheko lirake, baitta piztina be.

Aretxagazeta

214. zenbakia. 2001eko maiatzaren 25ean.
Durana 11, 151 postakutxatila.
ARETXABALETA.
Tel: 943 79 86 21.
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribebebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Amagoia Lasagabaster eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguila, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkarte, Zaraia mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulu, Leire Otaegi.


Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 1.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta irizkiekin.



Aretxabaletako Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia eta
Eusko Jauriaritzako kultura
sailaren laguntza

BALAZKUK (Hikaz berbetan)



■ **HIRUATXEK PROIEKTU BARRIA** Condega herrialdeko proiektua bukatutzat eman du dagoeneko Hiruatx taldeak. Indiako Unai proiektuan lortu beharreko ekarpen ekonomiko handiena ere, egina dago dagoeneko. Gauzak horrela, orain beste proiektu bat lantzen hasi dira Hiruatxekoak. Mundukidek antolatutako Garapenerako Truke Programaren bitartez sortu da laguntza barri bat emateko proiektua. Iaz, eta aurten ere, hemen izan ditugu kooperatiba mundua ezagutzen Hegoameriketako hainbat lagun. Harreman estu horren ondorioz, Hiruatxek, Amazonian burutuko du hurrengo proiektua. Hango komunitate Quitcheekin lankidetzan hasiko dira hain zuzen ere. Helburua, beraiek dauzkaten produktuen elaborazioan laguntzea izango da. Baina, oraindik proiektua guztiz zehaztu barik dago. Hiruatxek uda bukatzerako aurkeztu nahi du proiektua herrian.

Lanen ondorioz herria hankaz gora eta aparkaleku barik gelditu da

Herria hankaz gora dago azken aldian. Santakurtz kaleko lanek adibidez, aparkaleku barik utzi dute erdigunea. Arritzeko promotorea Iturrigorri pilotalekuaren parean egiten ari den etxebizitzetako lanek oztopatu dute kalea. Han eraikitzen diharduten 27 etxebizitzetarako azpiegiturak sartzen ari dira azken asteotan. Telefono-


aren, uraren eta gasaren hodiak lurpean jartzeko kale guztia altxatu dute. Ondorioz, zonalde horretan zeuden aparkaleku ugari ezin dira gaur egun erabili, ezta espaloi batzuk ere.

Arritzekok udalarekin hartutako konpromezua betez gero, lanak ekainaren amaierarako bukatuko dira.



Aparkaleku barik utzi dute Iturrigorri pareko zonaldea

■ **ERASOEN AURKAKO UDAL GUTUNA HERRI-TARRENTZAT** Azken aldian, ondasun publikoen aurkako txikizio eta eraso ugari egon dira gure herrian. Arrazoi horregatik, udalak eskutitz baten bitartez arazoarekiko duen kezka helarazi die herritarrei. Batetik, erasotzaile gazte hauen etorkizunari buruzko arduraz azaldu da gutunean. Bestetik, eskola eta etxeko eremuetatik kanpo adin txikikoen erantzunkizuna nork duen galdetzen du. Izan ere, erasotzaileek duten adinagatik ezin zaie zigorrik jarri. Ondorioz, kasu hauetan erantzulerik ez dagoela somatu du udalak. Arazoekin bukatzeko, konpromezua adierazten da gutunean. Horretarako, giza erakunde-erakunde, irakasleei eta gurasoei laguntzeko eskaera egin zaie. Asmo honekin, dagoeneko bat egin dute ikasketxeek eta baita guraso elkarteek ere.



Zenbaki

Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 • Faxa: 943 71 22 68 • E-mail: zenbaki@jet.es

**Aldez aurretik
deitu!**

Informatu, aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

ERRENTAREN AITORPENA

TELEMATIKA:
aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



1.177 milioiko aurrekontua onartu da 2001. urterako

Maiatzaren 21ean onartu ziren 2001. urterako udal aurrekontuak. PP eta PSOEko zinegotziak izan ezik, gai-nontzeko alderdi guztietako udal zinegotziak izan ziren ez ohiko udal bilkuran. Udaltzarrean hartutako eraba-

kiaren arabera Aretxabaletak aurten izango duen aurrekontua 1.777 milioitakoa izango da. Diru gehien, 200 milioi, lur sailen erosketan inbertitzeko asmoa du udalak. Lur hauek, etxebizitzak eta enpresa gu-

ne berriak eraikitzeko erosi-ko dira. Orokorrean 394 milioitako inbertsioak egin nahi ditu aurten udalak.

Industrialdeen bateratzea
Ez ohiko bilkura horretan, industrialdeen bateratzeari

buruzko puntu bat ere, eztabaidatu zen. Alkateak gaur egun proiektua nola dagoen azaltzeaz gain, aurrerantzean erabakiak hartu ahal izateko, udal ordezkariei euren onarpena emateko eskatu zien bilkuran.

1.177 milioiko aurrekontua onartu da

■ Ongizatea	77.852.583
■ Ingurugiroa	250.000
■ Garapen ekonomikoa	124.166.000
■ Kirolak	35.675.000
■ Kultura	31.745.000
■ Kontsumoa	978.000
■ Hezkuntza	22.045.000
■ Hezkuntza normalkuntza saila	31.368.554
■ Hirigintza	133.622.930
■ Obra eta zerbitzuak	184.744.494
■ Baserialdeak	31.901.246
■ Ogasuna	67.840.672
■ Idazkaritza	18.970.610
■ Lehendakaritza	410.295.297
■ Udaltzaingoa	3.545.200

■ Urats Gain zaharren egoitza

■ Udalaren aportazioa	78.687.596
-----------------------	------------

Aurtengo aurrekontuetan, beste urte batzuetan moduan, lehendakaritzari zuzenduko zaio diru gehien. Baina, joan den urtearekin alderatuz, sail honek jasoko duen dirua ia bikoiztu egin da. 2000. urtean, 271 milioiko aurrekontua izan zuen lehendakaritzak. Gainontzean, aurrekontuetako partida garrantzitsuenak, garapen ekonomikorako, hirigintzarako eta obra eta zerbitzuetarako erabiliko dira. Urats Gain zaharren egoitzarako aportazioa, 78,5 milioitakoa izango da. Iaz erdia eman zitzaion, 32 milioi.

Inbertsiotarako 394 milioi erabiliko dira

Aurten egingo diren inbertsioak 394.177.562 pezetakoak izango dira. Beraz, 2000. urtean baino zertxobait gutxiago inbertituko du udalak. Iazko inbertsioak 400 milioitakoak izan ziren. Aurten, diru gehien, 200 milioi, lur sailen erosketan inbertituko da. Baina lurak bakarrik ez ditu erosi, lokalak erosi eta egokitzeko ere 25 milioiko aurrekontua dauka. Gastuetan, barrez, lorategi eta parkeen mantenimentuak jasoko du diru gehien, 18 milioi. Hurrengo gastu handiena kiroletxeko zerbitzuetan egingo da, hemen 17,5 milioiko gastua izango du udalak.

■ Lur sailen erosketak	200.000.000
■ Saneamenduak	18.500.000
■ Beste urbanizazioak	20.000.000
■ Baintxeko bidea	16.000.000
■ Gernika plazako urbanizazioa	10.000.000
■ Urkulurako bidegorria	10.000.000
■ Oro auzoko saneamendua	22.500.000
■ Lokalak erosi eta egokitzeko	25.000.000

Aurtengo gastu garrantzitsuenak

■ Durana 13ko erreabilitazioa	6.222.562
■ Lorategi eta parkeen mantenimentua	18.200.000
■ kiroletxeko zerbitzuak	17.500.000
■ Jaiak eta kultur jarduerak	16.000.000
■ Euskaltegira	10.534.554
■ Bideen kontserbazioak	10.000.000

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABAETA

**OSKAR
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

ITURGINTZA

J.J.
Jose Jabier Irujo

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

Euskararen eguna eta Otala zelaiko erromeria

Jai giroa izan zen nagusi joan den asteburuan gure herrian. Eguraldi onak lagunduta, eta jendearen partehartzea ikusita, motz gelditu ziren bi egunak. Zapatuan, euskararen alde egin ziren ekitaldiak, domekan, barrez, erromerian Otala Zelaira joan ziren herritarrak. Bai batean zein bestean, antolatzailleek lan izugarria egin zuten dena ondo baino hobeto joan zedin. Hona hemen eurek ataratako argazkiak.



Euskararen aldeko babak ederrak zeuden, baina gualdean, edozein sartzen zen tabernetan



Herriko kontuetaz jakinaren gainean zeuden Peña eta Arozena



Majo bete zuten batzuk tripa gaztai eta sagardo dastaketan



Ikusleak bezain gustura ibili zen Gorriti bere animaliekin




Eguraldiak lagunduta, jende ugari izan zen herri bazkarian



Otala zelain egin zuten txikienek dantza estreinaldia

Gemes

estetika zentrua



GORPUTZEKO TRATAMENDUA:

zelulitisaren aurkakoa

lodihasuna

zirkulazio arazoak

lasaigarria

lrenajea

teafirmatzailea

erditze ondokoa

"TERMOESTIMULAZIOA"

Teknika berria

Udaberriko zainketak

- ✓ Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- ✓ Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz. Dekolorazioa
- ✓ Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- ✓ Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- ✓ Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- ✓ Ordezko azazkalak (natural-naturalak) manikura eta aplikazioa
- ✓ Pedikura
- ✓ Dieta pertsonalizatuak
- ✓ Betileen tindaketa
- ✓ Solarium-a

Durana, 40 2 - ARETXABAETA
Tel.: 943 79 99 18



Hezkuntza Eskaintza

Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Ibilgailuen Elektromekanika
- Kontsumorako Ekipo Elektronikoak
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako Laguntza Osagarriak

D Eredua

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produktzioa
 - Metal Eraikuntzak
- A eta D Ereduak

Aurreinskripzio Datak

Ekainaren 1tik 12ra (biak barne)

Goizeko 9:00etatik 17:00etara
(Ostiraletan 9:00etatik 14:00etara)

Sta. Teresa, 25
Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
Faxa: 943 79 44 37
20500 ARRASATE

Etxebarri auzoa, z/g
Tel: 943 79 79 00 • 79 79 43
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABAETA



Kuotaren zenbatekoa aldatzeko aukera ematen dizun lehen hipoteka

Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan bakarrik.

Badago zure etxebizitza finantzatzeko beste modu bat. Erosoagoa, malguagoa, askeagoa dena. Euskadiko Kutxak mailegu-kontzeptu berria eskaintzen dizu. Hipoteka lasaigarria. Hipoteka-mailegua lasaitasun osoz bizitzeko behar dituzun aukera guztietan. Kuotaren zenbatekoa nahi duzunean igo edo jaitea, denboraldi batzuetan interesak bakarrik ordaintzea, kuota ordaintzeko hileko eguna aukeratzea, edo interesetan erreferentzia bikoitza izatea, beti interes-tasarik onena aukeratu ahal izateko, baita berori mugatu ere. Aukera guztiak daude zure eskura. Mailegua behar duzunez, zeuk aukeratu nola bizi.

Aukerak:

- Hileko kuotaren zenbatekoa aldatzekoa
- Interes-tasa mugatzekoa
- Maileguaren hasieran denbora batez (gehienez 12 hila-betez) interesak bakarrik ordaintzekoa
- Maileguaren bizitzan zehar gehienez 2 denboraldiz (bakoitza gehienez 6 hilekoa eta batetik bestera gutxienez urtebeteko tartearekin) interesak bakarrik ordaintzekoa
- Kuota ordaintzeko eguna aukeratzekoa
- Interes aldakorraren epean une bakoitzean onena den interesa (Euriborra + 1,15 edo IRMH) aukeratzekoa

Ezaugarri nagusiak:

- Interes-tasa:** finkoa lehen epean eta aldakorra (Euribor + 1,15 edo IRMH erreferentzia) gainerakoan
- Interes-tasaren berrikuspena:** sei hilean behin
- Epea:** 30 urte arte
- Bermea:** hipoteka
- Amortizazioa aurreratzeagatik komisioa:** %0
- Kitapena aurreratzeagatik komisioa:** %1

Informazio gehiago: www.cajalaboral.com / 901 333 444

Euskadiko Kutxak eskariei gehienez 7 lanegun baino lehen erantzuteko eta eskaintza pertsonalizatuta eta idatzita entregatzeko konpromisoa du.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean

■ GELDITU BARIK DANTZAN

Orain bi aste atzeratuen jaialdia ospatu zen herrian. Bailarako 160 bat lagun elkartu ziren danera. Iturrigorri frontoian bazkaldu ondoren, dantza eta dantza aritu ziren. Edarto pasa zuten guztiak, eta antolatzaileek kontatu digutenez egun borobila izan zen.



■ ENTSALADA KABIAR ETA GUZTI

Erretratuko bikote honek irabazi zuen Ojala zelaiko entsalada txapelketa. Danera hamabost talde aritu ziren entsaladak gertatzen. Guztiak ere edarrak eta itxura onekoak. Baina argazkiko entsalada honek bazuen bere berezitasuna, itxuraz oso dotorea izateaz gain, ez ohiko osagaiak zituen, kabiarra esaterako.



Angelines
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu
*drogeria
mertzeria*

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero
Dekorazioa:
Soraya
Arquero

TXILARRA

**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28



Metro eta erdi, mesedez

Gero eta gehiago dira, bizikleta hartuta, Euskal Herriko errepideetatik abiatzen direnak kirola egiteko, denbora pasatzeko edota eguneroko "esne txarra" botatzeko pedalei eraginez.

Halakoetan dabilenak ondo daki kirol honen arriskua zein den. Gure errepideetan trafiko handia egoten da, eta, zikloturisten proportzioa gorantz badoa ere, oraindik asko dira bide osoa beraientzat dela pentsatzen duten kotxe edo kamioi gidariak.


Batzuek oso gertutik aurreratzen zaituzte (bizikletarekiko gutxienez metro t'erdiko distantzia utzi behar dela ahaztuz), beste batzuek (paretik datozenak) zure bidera pasatzen dira (adibidez beste kotxe bati aurreratzeko) zeu artzenera botaraziz (artzena badago, noski), askok bozina jotzen dute, besteek izugarritzko abiadan aurreratzen zaituzte...

Automobil eta kamioi gidari batzuentzat ziklistak traba bat baino ez badira ere, bizikletan ibiltzea eskubide bat da, eta, ez bakarrik ibiltzea, baizik eta ziurtasun eta errespetuarekin ibiltzea. Beti pentsatu izan dut gidari guztiek eman beharko luketela bizikletaz buelta bat. Horrela, kirol horretaz disfrutatzeaz gain, ziklistaren ikuspuntua lortuko lukete; eta, beraz, hortik aurrera aintzakitatzat hartuko lukete karrozeria bezala bere gorputz soila baino ez duen ibiltaria. Kotxe batek hogeita bost zentimetrotara aurreratu zaituenean beste era batez ikusiko duzu kotxe gidari zarenan aurreratuko duzun ziklista. Uste dut gidari batzuei burutik pasatu ere ez zaiela egiten batzuetan ziklista bat aurrean topatzen dutenean frenatu egin behar dutela eta honen atzetik joan behar dutela aurreratzeko aukera (aukera ziurra esan nahi dut) izan arte. Ondorioz, beti aurreratzen dute, eta paretik beste ibilgailu bat etorri gero, norantza uste duzue arrimatuko dela?.

Ez da ahaztu behar zikloturistok, gure partetik, ahalik eta gehien lagundu behar diogula kotxe eta kamioiari (beti ere gure ziurtasuna aurretik jarriz) eta argi eduki behar dugula errepidea beraiena ere badela.

Bukatzeke, esan errepideen egoera (gehien bat artzenena) oso txarra izaten dela kasu askotan: koskak, koipe mantxak, zikinkeria, e.a. ibilgailu guztien etsai badira ere, ziklistak dira akats hauek gehien nozitzen dituztenak. Trafiko arduradunen esku dago, beraz, arazo honen konponbidearen parte bat.

Fernando BERRIZBEITIA



“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Basabe, 2- ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Oñati, Bergara eta Aretxabaletako industrialdeen gerentea da gaur egun Koldo Azkoitia. Duela sei bat urte, Gatzagara joan zen bizitzera. Han ere, Aretxabaletan bezala azkar hartu zuen herriari laguntzeko ardura. Gatzagako udal zinegotzia da.



Koldo Azkoitia Industrialdeko gerentea

■ Zein da zure lanbidea?

■ Gaur egun Aretxabaletako, Oñatiko eta Bergarako industrialdearen gerentea naiz. Guk lur industrialak izan daitezkeenak bilatu, definitu eta gestionatzen ditugu. Gero, poligono horien urbanizazioaz arduratzen gara. Lokal horien komertzializazioa egin arteko prozezu guztia jarraitzen dugu nolabait esateko.

■ Orain zein proiektu duzue eskuartean?

■ Bainetxeko industrialde barriko urbanizazioarekin gabilta. Jadanik 2. aldiok lanak amaitzear daude. Eta horrekin lotuta, aste honetan bertan hasiko gara beste eraikin bat egiten Bainetxen. 5.700 metroko okupazio izango du. Azken eraikin honekin osatuko genuko industrialde barria.

■ Eta hiru herritako industrialdea bateratzeko proiektua nola doa?

■ Maiatza hasieran hartu genuen administrazio kontseiluan Bergara, Oñati eta Aretxabaletako industrialdeak bateratzeko akordioa. Behin aurrepauzu hori emanda, herri bakoitzeko industria elkarte bakoitzak bere onarpena emango du. Uztaila bukaerarako espero dugu Debagoieneko industrialdea S.A izango dena errealitate bihurtzea.

■ Aretxabaletari zein onura ekarriko dio proiektu horrek?

■ Eskualde guztietan ematen ari den prozesua da bateratzearena. Honekin kudeaketa eta burokraziako kontuak asko arinduko dira. Horrez gain, ekintza desberdinak egiteko ahal-

mena handiagoa izango da. Inbertsioak egiteko adibidez, diru kapital handiagoa izango dugu.

■ Gure herrian, azken aldi industrialdea eta etxebizitzak soilik egin dira, horrek nora garamatza?

■ Nire ustez, gure herrian azken 40 urteotan estruktura ekonomikoa guztiz aldatu da. Gauzak dihoazten eran horrelako aldaketak azkarrago egingo dira gainera. Garbi dago, hemen, gizarteak lanerako prestazio izugarria duela, hau da, lanerako bizi garaia ia-ia. Nire ustez, gure bizi kalitatea hobetu behar dugu, eta hori lortzeko herriari zerbait falta zaio. Hainbat zerbitzu eta alternatiba bilatu behar dira. Gainera, gaur egun uste

du, aisialdia bilatzeko eta lana murrizteko pentsamendua badagoela.

■ Zergatik bizi zara Gatzagan hemengoa izanda eta hemen lan eginda?

■ Garai baten, etxe zahar bat berritzeko inizatiba hartu nuen, ez bertan bizitzeko, denbora pasatzeko baizik. Baina, hala suertatzen dira gauzak, eta orain oso pozik bizi naiz. Hala ere, ez dut Aretxabaletarekiko harremanik galdu.

■ Ume txiki bat ere badaukazu, nola eramaten da lana eta etxeko ardura?

■ Egia esan, nire emazteak hartu du txikia zaintzeko ardura gehiena, hori onartu beharra daukat. Hala ere, orokorrean etxean egin beharreko lanak guztiz aldatu zaizkit niri.



Enriqueta Saez gurpildun aulkian Itziar Ramosek lagun eginaz

Ezinduentzat laguntza

Bizitza kalitateak bizi adina igo du eta gero eta nagusi gehiago dago gure inguruan. Asko bakarrik bizi dira, eta beste asko, egunean zehar bakarrik egoten dira seme-alabak lanean dabiltzalako. Hauei guztiei eta ezintasunak dituztenei behar duten arreta eskaini eta laguntzeko etxeko laguntza zerbitzua jarri zuen martxan 1982. urtean Aretxabaletako udalak Diputazioaren laguntzaz.

Etxeko laguntza zerbitzua 50 laguni ematen zaio gaur egun Aretxabaletan, horietako 34 emakumeak dira. Zerbitzua herritar guztiei zabaldua badago ere, bi ezindu fisiko izan ezik, gainontzekoak hirugarren adinekoak dira. Iazko udazkenean, gainera, Atsedeen enpresari eman zion udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ardura, zerbitzua hobetu eta laguntza pertsonalari garrantzia emanaz.

Ongizate sailetik bideratuta Etxez etxeko laguntza zerbitzua udaleko ongizate sailetik bideratzen da. Be-

raz eskaera egiteko bertara zuzendu behar da, eta laguntza beharrean dagoen edonork egin dezake. Momentu honetan hirugarren adinekoak dira erabiltzaile gehientsuenak, baina badira bi ezindu ere.

Laguntza hau eguneroko bizitzako lanak egiteko ezintasunak dituztenei zuzenduta dago. Bi eratakoa izan daiteke: bata pertsonala, norberaren garbiketa lanak egin, jantzi eta erantzi, jaten eman edo beste barik lagun egiteko, eta bestea, etxeko lanak egiteko. Hori bai, ez da egunean hiru ordu baino gehiagokoa izango.

Foru Aldundiak bultzatutako ekimen hau, lagun egitekoa da eta ez egun guztiko hutsunea betetzeko. Azkenengo kasu hauek eguneko zentruetara bideratu gura ditu Diputazioak. Aretxabaletak 7 leku ditu Arrasateko Aita Menniko eguneko zentruan, 6 psikogeriatrikoan Alzheimer, dementzia eta antzeko gaixotasunak dituztenentzat eta 1 ezintasun fisikoak dituztenentzat. Guztiak hirugarren adinekoentzat dira eta gaur egun beteta daude zazpi lekuak.

Zerbitzuaren eskaera Eskaera, udaleko ongizate

sailean egin behar da eta berak baloratzen du nori eman, eta zenbat orduz. Urrian Atsedeen enpresa hartu zuen udalak zerbitzuaz ardura zedin eta ordutik, udalak ordaintzen du zerbitzua, 1.583 pezeta ordua, eta gero erabiltzaileari kobratzen dio portzentai bat bakoitzaren ahalmenen arabera. Bego Arenaza gizarte laguntzailearen esanetan printzipioz eskaera egiten duen guztia-ri ematen zaio laguntza. Horretarako hainbat alderdi aztertzen ditu gizarte zerbitzuetako batzordeak: ezintasunaren medikuaren

txostena, diru sarrerak, familiaren egoera... Zerbitzua ematea egokia dela iritziz gero, zenbat ordu, nolako zerbitzua behar duen, eta erabiltzailearen diru aportazioa zehazten dira. Azkenik, Gobernu batzordean onartu ostean, Atsedeen enpresari berri ematen diote gizarte laguntzaileek langile bat bidali dezan dagokion etxera.

Erabiltzaileak pozik

Datorren urtean 20 urte beteko dira zerbitzua martxan jarri zela eta erabiltzaileak oso pozik daude. Pepi Rosadok gurpilezko aulkian dabilen semea dauka, Hector, eta egunean bi orduz joaten zaio emakume bat laguntzera. Eskola garaian arratsaldez laguntzen dio, erreabilitziora joaten lagun egin, etxera igoten eta jaisten lagundu... eta oporretan goizetan egoten da berarekin, jatorduak egin

edo beste barik lagun egin ez. "Oso pozik gaude laguntza zerbitzuaz, izan ere, gurasoontzat beste lasaitasun bat da gu falta garenean norbaitek lagun egiten diola jakitea" dio Pepik.

Aurtengo udazkenean hiru urte beteko dira Itziar Ramosek Enriqueta Saez zaintzen duela eta zein batak, zein bestea oso pozik daude. Goizeko zortzi eta erdietatik hamaika eta erdiak bitartean zaintzen du eta norberaren garbitasuna egin ostean, kalera ateratzen du gurpildun aulkian. Itziarrek hala ere badu bere kexa: "Atsedeen enpresan sartu garenetik gutxiago kobratzen dugu. Lehen 900 pezeta bazen ordua, orain, 900 horiei seguruari eman beharrekoa eta ordainsariak kentzen dizkiete. Lana atsegina dudalako eta Enriquetarekin oso gustura nagoelako jarraitzen dut baina bestela..."



Isabel eta Juan Murillo anai-arrebak, Toñi Hernandezen besotik helduta

Atsedeen: etxeko laguntza ematen duen enpresa

Udalak iazko uztailean etxez etxeko zerbitzuaz arduratzeko enpresa bat hartzea erabaki zuenean kalitatearen eta laguntza pertsonalaren aldeko apustua egin zuen. Enpresa hartzeak aurrekontua asko igoten bazuen ere aldatetak merezi zuela iritzi zion. Horrela bada, 2001eko aurrekontuak onartu berri direnean, ia 21 milioi eman dizkio udalak zerbitzu honi.

Aretxabaletako udalak egindako deialdiari erantzunez aurkeztutako bost enpresen artean Atsedeen S.L. izan



zen aukeratua. Atsedeen, orain bi urte sortu zuten Amalia Zarate eta Lorea Aranburuzabala arrasatearrek Saiolanen laguntzaz. Amalia gizarte laguntzailea da eta Lorea zuzenbidean lizentziatua.

Enpresa honek aurretik lanean zebiltzan langileak onartu zituen eta gaur egun Aretxabaletan etxeko laguntza zerbitzua ematen ari diren hamasei langileetatik hamabost atxabaltarrak dira. Gero eta eskaera haundiagoa dagoela diote bi neska hauek eta langileak hartzeko orduan ere geriatría laguntzaile ikastaroa egindakoak hartzen saiatzen ei dira: "Laguntza pertsonala ematen duten langileek formakuntza izatea garrantzitsua dela uste dugu. Gaixoaren beharrak hobeto ezagutzeaz gain, sarritan, pisu haundiko pertsonak mugitu behar izaten dira eta teknika egokiak jakinez gero norberaren gorputzak ere min gutxiago hartzen du". Atsedeen dauden langile guztiak emakumeak dira, erabiltzaileek nahiago baitituzte emakumeak: "Gaixok mugitzeko gizonen indarra egokiagoa bada ere, sarritan etxeko lanak ere egin behar izaten ditu, eta jendeak oraindik gizonen ez dakitela hautsa ondo kentzen edo behar bezala plantxatzen uste du" dio Loreak.



Txirrindularitza

Julen Galianok karrera bikaina Arrasaten. Joan den zapatuan Arrasateko Markulete industrialdean alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketa korritu zen. Alebinetan Arrasate kirolak taldeko Julen Galianok oso karrera ona egin zuen. Proban aurrean aritu zen atxabaltarra eta azkenean 13. postuan bukatu zuen. Denboraldi bikaina egiten ari da Arrasate kirolak taldeko txirrindularia, aurreneko postuetan bukatuz.



Mendia

Felix Iñurategi mendi eskola aurkeztu da. Dagoeneko aurkeztu da Felix Iñurategi mendi eskola. Proiektu honek Pakistaneko Balistan herrialdean goi mailako mendi eskola bultzatzea du asmoa. Eskola 1997an sortu zen, baina aurtan Felix Iñurategi izena jarri zaio. Eskolak goi mailako mendi gidariak heziko ditu, eta hauei lan baldintza duinak bermatzea izango du beste helburuetako bat.



Pilota


Atxabaltarrak Zaramagako pilota txapelketako finalean. Datorren zapatuan Zaramagako pilota txapelketako finalak jokatuko dira Gasteizen. Finaletan bi bikote atxabaltar arituko dira: alebinetan Beñat eta Ibai, eta juniorretan Josu Lasagabaster eta Aitor Alzola.

Ibai eta Beñatek lehen aldiz jokatuko dute Zaramagako finala, alsasuarren aurka. Josu eta Aitor lehenago ere heldu izan dira Zaramagako finalera, aurtan Bergara edo Eskoriatza izango dute aurrez aurre.



Karatea

Herriko hamasei karateka Oñatiko txapelketara. Datorren domekan, hilak 27, Oñatin ospatuko den karate txapelketan hartuko dute parte herriko hamasei karatekek. Iaz ere joan ziren karatekak txapelketa honetara, eta esperientzia berritan aberasgarria izan zenez, aurtan errepikatzea pentsatu dute. Arrasate, Oñati eta Bergarako karateken aurka lehiatu beharko dira gure herrikoak. Zortetik onena izango dute guztientzat.



Dominique Branant izan zen domekan onena

Joan den domekan Pedro Guenetxea memoriale ospatu zen herrian. 133 txirrindulari izan genituen danera lasterketan. Goizeko 11:00etan abiatu zen tropela Durana kaletik eta 53 kilometro egin ostean, bertan amaitu zen. Irabazlea Dominique Branant frantziarra izan zen, Pirineo Atlantico taldeko txirrindularia. Tropeletik ihes egin eta bera bakarrik sartu zen helmugan. JMAko txirrindularietan

tik Mikel Arregi ibili zen azkarren, eta lehen pelotioan sartu zen helmugan. Jon Lete eta Mikel Arana txirrindulariek, barrez, erdiko postuetan bukatu zuten.

Hurrengo karrerak

Lehen mailako kadeteek Euskadiko txapelketan hartuko dute parte datorren zapatuan. Domekan, barrez, erloju kontrako proba izango dute Legorretan lehen eta bigarren mailako kadeteek.

KORUETA INGURUAN HASIKO DA TRIATLOIA

Arrasate triatloi taldeak antolatatu duen Debagoieneko I. triatloia ekainaren 9an ospatuko da. Igeri proba 16:00etan hasiko da Urkulun, goiko argazkian adierazten den lekuan. 1.500 metro igeri egin ondoren, partehartzaileek bizikleta hartu eta 40 km egin beharko dute Arrasate inguruan. Korrika proba ere azken herri honetan egingo da, bost kilometroko zirkuitoari bi buelta emanez. Antolatzaileek web orri bat zabaldu dute. Probarako nola gertatu, inskripzioa nola egin eta probaren inguruko informazio osoa ematen da bertan: www.euskalnet.net/arrasatett.



Irabazlea eta taldekideak probaren ostean

FUTBOL DENBORALDIARI AGURRA

Preferenteak izan ezik, gainontzeko talde guztiek bukatu dute aurtengo denboraldia. Aurtan futbol talderik ez da nabarmendu, baina guztiek euren helburua bete dutela esan dezakegu, maila mantentzea hain zuzen ere. Lehen mailako jubenilek maila jaitسي dute, baina gainontzeko guztiek sailkapeneko erdi inguruan bukatu dute. Preferenteari dagokionez, partidu bakarra gelditzen zaio bukatzeko. Gainera, Anaitasuna, liderraren aurka neurtu beharko ditu indarrak. Herriko taldearentzat ez da partidu erabakiorra izango, baina bai ordea azkoitiarentzat, partidua irabazten badute mailaz igo baitezakete. Bestalde, Uda eta Hernaniren azkenengo partidua aipatzekoa da, Uda 7-1 gailendu zitzaion Hernaniko taldeari. Partidu honen ostean ligari amaiera ondo emango diola espero dugu.

Garai bateko "Kostaldeko" mendi elkarteek, Pako Iriondo omenduko dute gure herrian ekainaren 3an. 1971. urtetik gaur arte Pakok mendiaren alde egin duen lan izugarria txalotu eta eskertu gura dute horrela.

■ **Hiru urtean "Kostaldeko" ordezkari, eta gero beste 18 urte Euskal mendi federazioko lehendakari, zer daukazu esateko?**

■ Gauza asko. Zorionez 21 urte horreik oso ondo joan zaizkit. Oso bereziak izan dira, lan asko egin behar izan dugu, baina jendearen laguntasuna eta maitasuna lagun izan ditut.

■ **Nola gogoratzen duzu "Kostaldeko" ordezkari izateko proposatu zizuten egun hura?**

■ "Kostaldeko" ordezkariak udazken aldera elkartzen ginen, urteko egitaraua gertatzeko. 1971. urtean Aretxabaletako Muru alden egin genuen batzarra. Han elkartu ziren ordezkariak, "Kostaldeko" ordezkari izateko aurkeztea proposatu zidaten. Zaila izan zen eskaera hari ezetza ematea, mendi alorrean lan haundia baitzegoen egiteko. Beraz, aurkeztu eta neu izan nitzen aukeratu.

■ **Beraz, omenaldia Aretxabaletan izateak badu esanahi berezi bat.**



■ Bai, nik omenaldia hemen egitea gustatuko litzaidakeela esan nuen, alde batetik, "Kostaldeko" ordezkari izateko proposamena herri honetan egin zidatelako. Eta bestetik, Inurrategi anaiei esker beti izan dudalako lotura estua Aretxabaletarekin.

■ **Nola laburtuko zeniguke federazioan egin duzun lana?**

■ Hasierako urteak gogorrik izan ziren oso. Huts-hutsetik hasi behar izan nuen, izan ere, federazioa desagertuta egon zen hiru bat urtean. Diru aldetik ez zegoen laguntzarik, eta material egokirik ere ez genuen. Baina federazioa martxan ja-

Pako Iriondo

Euskal mendi federazioko lehendakari ohia

ten. Eta orain urte bi Juanito Oiarzabal munduko seigarren mendizalea izan zen hamalau zortzimilakoak zapaltzen. Inurrategi anaiena ere kasu berezia izan da. Bi anaiak elkarrekin izan dira hamabi zortzimilakoen gailurrean.

■ **Bi anaiekin lotura estua izan duzu.**

Bai, bi mendizaleak ezagutu nituenean Albertok 20 urte zituen, eta Felixek 21. Harreman estua izan dut geroztik eurekin, eta neure semeak izango balira bezala lagundu eta maitatu izan ditut.

■ **Zein aholku emango zenioke lehendakari barriari?** Nik hiru elementu izan ditut kontuan federazioan lan egin dudanean: lana, apaltasuna eta mendizaleekiko errespetua. Hiru puntu horiek behintzat kontuan hartzeak dira.

■ **Zer eman dizu mendiak horrenbeste urtean?**

Oroitzapen onak, lagun asko, eta baita laguntasun haundia ere. Eta orain, barez, Aretxabaletan egingo didaten omenaldi hau. Hala ere, bizi naizen artean mendiarekin lotuta jarraituko dut.

rri genuen, eta baita Pirenaika aldizkaria ere. Gero 86an osterera federazioan sartu nintzenean, gauzak oso aldatuta zeuden. Dirulaguntzak zeuden, material gehiago ere bai, eta mendizale federatuak izugarri gehitu ziren.

■ **Mendizaleetasuna gertu-gertutik bizi izan duzu, zein bilakaera izan du?**

■ Lehen Euskal Herriko mendizaleak ez ziren ezagutzen mundu mailan. Baina orain 25 bat urtetik hona euskal mendizaleak mundu osoan ezagunak dira, eta errespetu bat irabazi dute. Orain sei bat urte, gainera, hemengo mendizaleek hamalau zortzimilakoak zapalduta zituz-

Zubia



ZAPATAK, ZAPATILAK
GERRIKOAK
ETA POLTSAK

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00
ARETXABALETA

**Apotzako
San Migel
merenderoa
alokatzen da**

943 71 49 96

**Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia**

**IMANOL
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

Samur esaten da baina 25 urte badira, Nekane Quintas Gurea tabernan lanean hasi zela. Gazte-gaztea zen artean, sukaldeko ontziak garbitzen hasi zenean. Orain denetik egiten du, baina hantxe jarraitzen du gustura eta pozik Gurea tabernako sukaldean.

Nekane Quintas "Hogeita bost urte daramat Gurea tabernan lanean"



■ Asko aldatu da Gurea taberna orain 25 urtetik hona?

■ Tabernan lehenengo erritmora jarraitzen dugu lanean. Bezeroa, barrez, exijenteagoa bihurtu da, lehen baino gehiago eskatzen du, eta horrek aldaketa batzuk ekarri ditu.

■ Zein izan da zure lana urte luze hauetan?

■ Ontziak garbitzen hasi nintzen, gero zerbitzari lanak ere egin nituen, eta orain lan desberdinak egiten ditut.

■ Zer da lanera sartzean egiten duzun lehenengo gauza?

■ Sua piztu. Salda sutan ipini, babak gertatzen hasi...

■ Sukalde tradizionala ala modernoa da zueina?

■ Oso tradizionala.

■ Zelako bezeroak izaten dituzue?

■ Garraiolariak, enpresa gizonak, obreroak... denetarik.

■ Hogeita bost urtetan jende ospetsurik pasatuko zen hemendik.

■ Bai, Teresa Rabal, Gurrutxaga, Ainhoa Arteta, herriko ospetsuak, bertsolariak, garai bateko ziklo krossean parte hartzen zuten txirrindulariak...

■ Zein da eguneko momenturik onena?

■ Hamarretan, kafea hartzen duguneko momentua.

■ Noiz hartzen da atsedeen sukaldean?

■ Arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

■ Zer egiten duzu lanetik urtendakoan?

■ Orain bi urteko umea dudanez, nahikoa dut hau zaintzeaz eta etxeko lanak egiteaz.

■ Afizioak.

■ Lehen ugari nituen, gantxiloa... baina orain gero eta gutxiago egiten dut.

■ Giro ona egoten da sukaldean?

■ Momentu honetan behintzat oso ona.

■ Plater gustuko bat.

■ Pasta plater eder bat.

■ Asteko egunik onena?

■ Eguakotx arratsaldean, jai izaten dugu eta.

■ Non jaio zinen?

■ Eskoriatzan.

■ Nongoa sentitzen zara?

■ Galdera zaila da hori. Egia esan Eskoriatza asko gustatzen zait, baina hemen ere ondo bizi naiz.

■ Udara begira zaintzen zara?

■ Udan bakarrik ez, urte guztian zehar zaintzen naiz apurtxo bat.

■ Bukatzeko, amets bat.

■ Herrian kafeteria bat jartzea.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak
- ◆ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



**FELIX
PAGALDAY**


Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

8. IBILBIDEA

UGAZTEI-HAITZULO-URREXOLA GARAI-URKULU

Luzera: 5,3 kilometro - Denbora: Ordu 1 41'



Haiztgain presa

Ugazteira arteko bidea 5. ibilbidean deskribitu genuen. Hor-taz, gaurkoan handik hasiko dugu ibilbidea.

Ugazteiko zelaian plubiometroaren ondoan gaude, Haiztgain presara ura daraman kanalaren ondoan. Kanala jarraituko dugu, batzuetan honen gain-gainetik eta beste batzuetan aldameneko bide-zidor bate-tik. Ate zahar baten arrastoak dau-den lekura iritsiko gara (725 m.13"). Ate honek bidea itxiko zuen segurue-nik garai batean. Izan ere, hortik aurrera lurra orografia dela eta, uraren hodia porlanezkoa izatetik metalikoa izatera pasatzen da, eta lurraren mailatik metro batzuetara dago. Gaur egun hodiaren aldamenetik lasai joateko beste burnizko bide antzeko bat egina dago, baina orain gutxirarte, zati hura pasatzea abentura bat izaten zen. Hodiaren gainetik gurutzatu behar izaten zen zatia, inongo segurtasun neurri barik.

Behin hodia pasatakoan kanaletik jarraituko dugu, iparraldeko norabi-dean. Kanala gurutzatzen duten bi bide zidorrei ez diegu kasurik egingo, bata hodiaren amaieratik 277 metrotara dago, eta bestea azken honetatik 225 bat metrotara. Laster Haiztgain presan izango gara (1214 m. 20").

Garai baten presako zaintzailearen etxea izan zitekeenaren ondotik bi-dea beherantz jarraituko dugu, beste bide batera iritsi arte. Hau zuzen gu-rutzatuko dugu, beste bide-zidor ber-ri batekin topo egin arte. Bidea ez da oso argi ikusten, baina hala ere, bertatik beherantz egingo dugu. Harriz eginiko ardientzako horma baten aldamenetik pasatuko gara (1100 m. 20"). Hemendik gutziz



Nafarroa kalea, 4 b.
Postakutxa 103
Tfnoa.: 943 79 03 34



Bidea uraren hodiaren ondotik doa

garbi ikusten ez den bidea jarraituz, 150 metrotara gutxigorabehera Haitzuloko koban izango gara.

Koba honek Orkatzategi mendiaren horman zulo haundi bat zabaltzen du. Bertatik Arantzazu eta Aloña mendilerroa begiratzuz, paisaje zoragarria ikusten da.

Etixerako buelta, etorritako bide beretik egingo dugu, baina bide-zidorrean gora eginez, mendiaren puntu altueneraino jarraituko dugu. Presa baino gorago igo behar da, eta poste elektriko batzuk dauden lekura iritsiko gara.

Handik, beherantz jaisten den bidezidor bat ikusiko dugu. Bide hau Haitzgainetik Olarteko zentral elektrikorara ura daraman hodiaren ondotik doa.

Berehala hodia eta ate bat gurutzatu beharko ditugu. Bidea jaisten jarraituko dugu, hasieran sigi-sagan Urrexola Garairaino. Handik, Arantzazuko bailarak eskaintzen dizkigun paisaje eta baserri ederrez gozatu ahal izango dugu (1164 m. 22”).


Urrexola Garaitik Urkulura jaitsiko gara, (ikus 5. ibilbidea). Urkulun gaudela bide desberdinetatik heldu daiteke kalera, Larriño auzotik adibidez (ikus 5. ibilbidea).



Araotz auzoa eta atzean Aloñako mendilerroa



Argazkiko atea pasatuko dugu bidean



Haitzulotik paisaje zoragarria ikus daiteke

Aretz
taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Mobiliario
ARENAZA

- . ALTZARIAK
- . DISEINUA
- . APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

MartiW

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72



Ondo girotutako astebukaera

A zelako zapatu eta domeka izan ditugun! Zapatuan gure "eguneroko" hizkuntzaren eguna zelebratu ahal izan genuen. Horretarako, zenbait ekintza antolatu ziren. Besteak beste: bertsolariak, **Estitxu Arozena eta Peña**. Pentza zelako oihartzuna izango duen Gaztetxearen kontuak, hauek ere jakinaren gainean zeuden eta. Honetaz gain, egunean zehar ere izan ziren beste ekintza batzuk; babajana, haurren parkea, euskal dantzak etab.

Hurrengo egunean, bixamon barik zeudenak Otxal Zelaira joan ziren. Bertan, giro aparta egon zen, han ere bezperan bezalaxe ez zen falta ekitaldirik. Entsalada lehiaketan atxabaltar bik irabazi zuten: **Ainhoa Egañak eta Amaia Aranak**. Hauek Argiñanoren aldean dotorea prestatu zuten. Asteburuan zerbait igarri bada, burrunda izan da. Lehenengo Bermeotik etorritako Txatunga Benbek gure kaleak alaitu zituen, eta ondoren hauek baino hobeto **Leizarra musika eskolako** irakasleek egindako perkusio erakustaldia egon zen Otxal Zelain.

Jai kontuak alde batera utzita, aurreko batean, Monegros-eko (Zaragoza) desertuan martxa batean izan ziren atxabaltar batzuk. Eta a zelako martxa! 125 km egin zituzten oinez **Fernando Uri-**

besalgok eta **Jabier Irurek**, horretarako ia egun osoa behar izan zuten: 23 ordu eta 28 minutu. **Koldo Zubillaga, Jabier Etxebarrieta "Patas" eta Alberto Arenazak** bizikletan egin zuten.

Ez dago golik gabeko astebukaerarik, eta argi erakutsi du oraingoan UDak, Hernaniren aurka 7-1 irabazi ostean. Goleatzaileak: **Dabid Kanas (3gol), Kepa Azkue, Ekaitz Armentia, Aitor Alarzia eta Armendariz**. A ze partidua!

Amaitu baino lehen gorpuzta ordaitu ez dadin, gonbita egingo dizuet, ekainaren 2an, zapatua, Larriñoko San Kristobal elkartearen egingo den bertso afarirako. Bertan **Jon Maia** eta **Jokin Sorozabal** izango dira kantuan. Esan beharra daukat ekintza hau antolatzeko arrazoia Deba-goieneko preso ohie eta senitartekoei omenaldia egitea dela, eta hau antolatzen herriko Plataforma ibili dela. Ea bada bertsolarien mezua urrutira heltzen den!!

Hurrengo egunean ere bada beste zita bat, **Pako Iri-ondo** Euskal Mendizale Federazioko lehendakari ohia omenduko da herriko plazan.

Kontu barriren bat pasetan bada Atxabaltako herrian, hori hurrengo alean izango da.

M. J. Arzak



Asterix eta Latraviata

Testua eta ilustrazioak, **Albert Uderzo**
Salvat Editores, 2001.
– [Euskarazko argitalpena Alberdaniak banatua]

Asterixen abentura berri bat duzue honako hau. Oraingoan Asterix eta Obelixen amak etorriko dira herrira beren semeak ezkontzeko asmoz; bitartean erromatarrek Falbalaren (Obelixen maitasun platonikoa) itxura duen emakumea bidaliko dute herria konkistatu ahal izateko.

Egia esateko Goscinnynren gidioak dexente hobeak ziren honako hau baino, baina Asterixen jarraitzaileek uste dut gustura irakurriko dutela lan hau, behar bada azkena izango dena, Uderzoren adina ere kontuan hartzen badugu.

Aipagarria da eta eskertzekoa, Asterixen azken lan hau euskaraz eta erdaraz aldi berean argitaratu izana. Beste lan gehienak lehenik gazteleraz argitaratzen dira eta euskaraz atera orduko erdarazko bertsioa irakurrita izatea normalena izaten baita.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

LEHIAKETA!

ESALDI HAUEN ARTEAN ZUZENAK DIRENAK AZPIMARRA ITZAZU:

- ✓ Nire egunean oparitutako pelota galdu dut!
- ✓ Noiz dira zure zorionak?
- ✓ Zeba ez zatoz gurekin?
- ✓ Datorren urteko Karnabaletan pirata joango naiz
- ✓ Aurtengo Ihauterietan Pailasoz mozorrotu nintzen
- ✓ Badakizu Mariari Jon gustatzen zaiola?
- ✓ Jabi, zu Naiarana gustatzen zara?

Orritxo hau **Kurtzebarri eskolan** edota **Aretxagazetan** dagoen buzoira bota ezazu ekainaren 4a baino lehen.

Animatu eta parte hartu
SARIAK DAUDE!



MAIATZA**25 EGUAKOTXA****■ KONTZERTUA**

Loramendi euskara elkarteak antolatuta Ken 7 musika taldeak kontzertua eskainiko du Ezkutu tabernan 22:30etik aurrera.

EKAINA**2 ZAPATUA****■ BERTSO AFARIA**

Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataformak bertso afaria antolatu du, Debagoienero preso ohiei eta senitartekoei omenaldia egin asmoz. Jon Maia eta Jokin Solozabal bertsolariak izango dira Larriñoko San Kristobal elkartearen. Afariaren prezioa 2.500 ptakoa da. Txartelak salgai daude Arlutz tabernan maiatzaren 27a artean.

3 DOMEKA**■ PAKO IRIONDORI OMENALDIA**

Eguerdiko 12:30ean herriko plazan omenaldia egingo zaio Pako Iriondori. Ondoren 14:30ean bazkaria izango da Iturrigorri frontoian. Txartelak Zараia, Uda eta Murrukixon eskuratu ahal izango dira 4000 ptan.

■ ARGAZKI**ERAKUSKETA**

Pako Iriondoren omenaldiaren barruan mendizale honi buruzko argazki erakusketa izango da Murrukixoko lokalean. Egunean zehar izango da erakusketa eta lunch batekin lagunduta.

■ MENDI URTEERA

Zaraia mendi taldeak Arabako itzuliaren beste etapa bat egingo du: Nanclares de la Oca-Ulibarri-Olleros. Urteera goizeko 8:30ean izango da Zарaiako lokaletik.

9 ZAPATUA**■ DEBA GOIENERO I. TRIATLOIA**


Arrasate triatloi taldeak Debagoienero I. triatloia antolatu du. Urkulun Korueta inguruan izango du hasiera arratsaldeko 16:00etan.

16-17**■ PIRINEOETARA URTEERA**

Murrukixoko mendizale elkarteak Pirineoetara urteera antolatu du. Hiru erregeen mahaia igoko da. Izena ematea Murrukixoko lokalean egin daiteke martizenetan 19:30etik 20:30era, ekainaren 12a baino lehen.

IKASTAROAK**■ GRAFOLOGIA**

IKASTAROA Kultura sailak grafologia ikastaroa antolatu du. Ekainean zehar eguneroko emango da, hileko lau egunetan. Bi orduz emango da, 19:00etatik 21:00era. Irune Ibarra izango da irakaslea. Izena eman gura izanez gero kultur etxean egin daiteke, 943 71 10 27.

**ERAKUSKETAK****■ EGUZKI BIDEZKO**

ASMAKARIEN ERAKUSKETA Ekainaren 8tik 16ra bitartean Eguzki bidezko asmakari erakusketa egongo da ikusgai udaletxe zaharrean Loramendi euskara elkarteak antolatuta. Ordutegia astegunetan 17:30etik 20:00etara izango da, eta zapatu eta domekan 11:00etatik ordu 1:30era eta 17:30etik 20:00era.

Z I N E K L U B A

Ekainak 7

- CORRE LOLA, CORRE (Alemania)

Urtea: 1999

Aktoreak: Franka Potente, Moritz Bleibtreu...

Ekainak 14

- TAXI DRIVER (EE.UU.)

Urtea: 1976

Aktoreak: Robert de Niro, Jodie Foster, Albert Brooks



22:30etik aurrera
kultur etxean
ZATOZI!

Zorion agurrak



Oihana Aldai
Maiatzak 6
(9 urte)
Zorionak eta muxu
haundi bat etxeko-
en partetik.



Itsaso Aldai
Maiatzak 16
(7 urte)
Zorionak eta muxu
haundi bat etxeko-
en partetik.



Markel Guisado
Maiatzak 18
(11 urte)
Etxeko en partetik
zorionak.



Celia Garcia
Maiatzak 22
Zorionak etxeko en
partetik.



Martin Garai
Maiatzak 22
Zorionak "jefe".



Jon Davila
Maiatzak 24
Zorionak eta muxu
haundi bat etxeko-
en partetik.



Pako Oskoz
Maiatzak 24
Zorionak aitiba
Pako eta muxu
haundi bat danon
partetik.



Saioa Eloriz
apartietxe
Maiatzak 25
Zorionak etxeko en
partetik eta ondo
pasatuartzelona
aldean.



Domi Lezeta
Maiatzak 26
"Kaxera ilustra-
da"ri zorionak
"Fax" peñaren par-
tetik.



Alaitz Beltran de
Heredia Altube
(2 urte)
Maiatzak 28
Zorionak etxeko en
partetik.




Koldo Zubillaga
Maiatzak 29
Zorionak etxeko en
partetik.

Sail honetan norbait
zoriondu gura baduzu
Aretxagazetara zuzendu
(Durana, 11) edo eta 943
79 86 21 telefonora deitu.

Txistuak • Txaloak

Zorionak eta txalo haundi bat Euskal Herriari eta bereziki Aretxabaletari joan ziren hauteskudeetan izan zen parte-hartze haundia dela eta. Inoiz ezagutu den kanpaina zikin eta gogorrenaren ostean, herritarrek behar denean bada-kitela euren ahotsa entzunerazten erakutsi zuten % 83ko partehartzea lortuaz. Botua emateko eskubidea zuten 5.192 atxabaltzarretatik 4.290ek eman zuten. Zorionak barrero ere eta bukatzeko galderatxo bat: kanpaina ostean herriko kaleak kartel pankarta eta papelez beteta geratu ziren, ez al litzateke polita izango hauteskunde propa-ganda jartzen duten militanteak eurak izatea gero ken-tzeaz arduratuko direnak? Hurrengorako utziko dugu lan hau, udaleko langileak hasi dira eta garbitasun lanekin.



Jaiotakoak

■ **Markel Caballero Barrocal**
Maiatzaren 2an.

■ **Julene Rosado Garcia**
Maiatzaren 7an.

■ **Ainara Vazquez Cantero**
Maiatzaren 9an.

■ **Eneko Mateos Madina-beitia**
Maiatzaren 12an.

■ **Iker Romero Boyero**
Maiatzaren 18an.

Hildakoak

■ **Jesus Martinez Hernandez**
Maiatzaren 12an. 32 urte.

■ **Guillermina Llano Echeguibel**
Maiatzaren 18an. 64 urte.

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Telebista 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkartea 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 71 26 28
- Kultur-Etxea 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murruxiko M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikast. 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15



U Murugaineko eguna

Urteetan ekaineko lehen domekan ospatu izan da Murugaineko eguna. Egun honetan ez da ekintza berezirik egin izan, baina garai batean eguna gogoratu eta mendi tontorretik bueltatxo bat egiteko ohitura zegoen. 1959. urteko ekai-

naren 7an ere halaxe egin zuten fotografiako lagunek. Eguraldi txarra zela eta, oso herritar gutxi animatu zen Murugainera joaten, argazkian duzuen koardrilatxoa bakarrik. Tontorrean gurutzearen ondoan argazki polit hau atara zu-

ten gazte nahiz nagusiek. Argazkikoak ezkerretik eskumara: **Luis Leanizbarrutia, Jose Biain, Arantxa Biain, German Gonzalez, Paul Zuazabeitia, Nemesio Arkauz, Jose Angel Biain.** Behean jarrita: **Pako Axpe, Miguel Igartua.**



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Taberna eta jatetxeen gida

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Kafetegia
eta
taberna

H A I Z E A

Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Gurea taberna

*Eguneko menuak
plater konbinatuak*

GUREA

Durana kalea • 943 79 20 64

Express



Santa Kurtz, 16
943 79 23 43

zure gustoko giroa

Arlutz taberna




MITARTE, 16 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 32 34

Gustuko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Hirusta jatetxea

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

Mendiola erretegia



Bazkariak
eta afariak

Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

Baster alde jatetxea



SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galartza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA


Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

Mitartegarai



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Josu taberna

*Josu
harategia
taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

ALMERA SEDAN. BERDIN DIO NORA ZOAZEN.
EZ ZARA AUTOTIK JAITSIKO.



Stock-ean dauden autoentzat eskaintza bereziak.
500.000 pezetako finantzaketa 6 hilabetera %0an.



1.5, 1.8 eta 2.2. Di motorrak.
2.000.000 pezetatik aurrera (Prever plana barne).

SEE THE CHANGE

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGARIK GABE



ALDIBI AUTOAK, S.A.
ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.
aldibi@nortekar.com



Grupo
Nortekar